

Inprimagailu bera faxarentzat eta fotokopiagailuarentzat

Gaur egun enpresek elkarri bidaltzen dizkieten dokumentuen erdiak fax bidez transmititzen direla kalkulatu da. Faxetan normalean, do-

onekoa izaten, eta bes-tetik, paper termikoa eskuetan erabiltzeko ez da eroso (erroilu gisa bilduta egon delako). Horregatik egunero egin behar izaten dira faxen fotokopiak, eta horrek kostua du.

"Kyocera" etxeak ordea, fax/fotokopiagailua bikotearen ordeztatu bakarria prestatu du. "Kyofax" izena ipini diote eta bi teknologia



"Kyocera" etxeak, fax/fotokopiagailua bikotearen ordeztatu bakarria prestatu du. "Kyofax" izena ipini diote eta bi teknologia ditu bere baitan.

kumentua paper termikoan inprimatzen da, eta gero dokumentu horri askotan fotokopiak ateratzen zaizkio, ale gehiago edukitzeko, banatzeko eta gordezko. Lan horrek ordea, badu bere oztopoa. Batetik, faxez heldutako dokumentu originala ez da kalitate

ditu bere baitan. Batetik telekopiak hartzeko modulu ahaltsu eta autonomoa du, eta bestetik inprimatzeko motore autonomoa (laser inprimagailuen ezaugarri guztiak dituen).

"Kyofax" aparatua faxak jaso eta gorde egin ditzake, integratutako memoriari esker; baita konektatuta dagoeneko PC ordenadorea itzalita badago ere. Horrela jasotako faxari nahi adina kopia ateratzen dizkio, baina nahi izanez gero inprimagailu klasiko gisa ere erabil daiteke.

Etorkizuneko txipa

Elementu elektronikoak egiten dituen Koreako Samsung etxeak 256 megabitteko ahalmena duen "txipa" prestatu duela iragarri du, eta munduan horrelako besterik ez dagoela adierazi du. Memoria dinamiko hau, pertsonaren atzazala halako bi da tamainaz eta egunkariko 2.000 orrialde betetzeko adina informazio gorde dezake. 1997 edo 1998. urtean merkaturatuko omen dute eta definizio handiko telebistan zein etorkizuneko multimedietan erabiliko omen da.

Kaptorez hornituta dagoelako, airearen tenperatura, hezetasuna, konposizioa, ke-kantitatea eta beste zenbait daturik buruzko informazioa jasotzen du, eta daukan programa bati esker sute-arriskuak eta higidura susmagarriak ebaluatzen ditu.

Zortzi kilometro orduko abiadura besterik ez duenez, SR2 robota ez dago lapurrak harrapatzeko diseinatuta. Horretarako museoak ondoan beste segurtasun-sistema bat du. Dena den, robotak dagoeneko inguruko industria batzuetako gas-ihesak detektatu ditu, eta saihestu diren kalteak kontutan hartuta, bere burua ordaindu duela esan daiteke.



Museoak zaintzen dituen robota

Estatu Batuetan Los Angeles hiriko museo batek zaintzaile berezia du: SR2 robota, hain zuzen. Gueuz erakusketa-areto batetik bestera ibiltzen da bertako artelanak zaintzen. Museoko gela, pasabide eta aretoen planoan memorian du eta badaki oztopoak nola saihestu behar diren. Museoko bi punturen arteko bide motzena zein den ere badaki, eta ultrasoinuzko sistema batek atea irekita ala itxita dauden esaten dio.

Estatu Batuetan Los Angeles hiriko museo batek zaintzaile berezia du: SR2 robota, hain zuzen.

